



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak

Udalerri mailako analisia
Laburpena eta ondorioak

Natxo Sorolla Vidal
Olatz Altuna Zumeta
Imanol Larrea Mendizabal



Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak

Udalerrri mailako analisisia
Laburpena eta ondorioak

Egileak: Natxo Sorolla Vidal, Olatz Altuna Zumeta eta Imanol Larrea Mendizabal

Diseinua: Zirrimarra Estudio Grafikoa

Argitaratzailea: Soziolinguistika Klusterra

Lehenengo edizioa: 2019ko maiatza

ISBN: 978-84-943708-4-7

Babesleak:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA-SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa
(CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko,
bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

AURKIBIDEA

1. Hitzaurrea	4
2. Sarrera	5
3. Metodologia	6
3.1. Aztertutako aldagaiak	7
3.2. Analisi unitatea: udalerrria.....	8
3.3. Analisi estatistikorako baliatutako teknikak.....	8
3.4. Lotura eta kausalitate kontzeptuei buruzko oharra	9
4. Analisia	10
4.1. Kale-erabileraren azterketa.....	11
Kale-erabilera eta hizkuntza gaitasuna.....	12
Kale-erabilera adinaren arabera.....	12
Kale-erabilera eta haurren eragina	14
Kale-erabilera eta lehen hizkuntza	15
Kale-erabilera eta etxeko erabilera	15
4.2. Multzokatze soziolinguistikoa	16
Udalerrien multzokatzea	17
Mapa Soziolinguistikoa eta udalerrien multzokatzea: bien arteko alderaketa	18
Udalerrri-multzoen deskribapena.....	18
Udalerrriak multzoka	23
4.3. Faktore soziolinguistikoak	25
4.4. Etxeko erabilera eta lehen hizkuntza	28
4.5. Eragin-eremu geografikoak eta erreferentzialtasuna.....	30
4.6. Faktore soziodemografikoak.....	32
5. Ondorioak	36
6. Erreferentzia bibliografikoak	42

1.

–

Hitzaurrea

Soziolinguistika Klusterrak urte asko daramatza euskararen erabilerari buruzko datuak jasotzen. Azken urteotan ehun bat herrietako datuak bildu ditugu, zehaztasun handiz.

Aldi berean, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak Inkesta Soziolinguistikoaren bidez jaso dituzte herritarren hizkuntza-gaitasunak, jarrrerak eta erabilerak. Biztanleriaren Zentsuko datuak erabiliz, gainera, datu soziodemografikoak ere eskuratu daitezke.

Modu horietan jasotako datuekin errealitate soziolinguistikoaren argazki nahiko osatua dugu. Are gehiago, gaur egungo errealitatearen argazkia izateaz gain, aldika egindako datu-bilketak direnez, bilakaera soziolinguistikoa ere jasota geratu da.

Eskura dugun datu multzo handi horren interpretazioan sakontzeko aukera eta beharra ikusi du Soziolinguistika Klusterrak, eta helburu horixe betetzera dator ikerlan hau.

Natxo Sorolla ikerlariari eskatu zaio azterketa estatistikoa bideratu dezan. Natxok, izan ere, esperientzia handia du datu soziolinguistikoaren analisi kuantitatiboan, eta katalanaren egoera soziolinguistikoa oso ondo ezagutzen du. Natxok kanpoko begiratuaz aztertu ditu gure errealitate soziolinguistikoaren adierazleak. Hala nahi izan dugu, berariaz egin dugu horrela. Distantzia mesedegarria iruditzen zitzaigun hasierako hurbilpenean. Gero-
ra etorri dira Soziolinguistika Klusterreko kideon ekarpenak, kontrasteak eta gertuagoko begiratuak, eta badugu irudipena, batetik eta bestetik, lana ondo hornitu eta osatu dela.

Hau guztia ez zatekeen posible Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketarik gabe. Eskerrik asko.

2. - Sarrera

Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak identifikatzea da euskal soziolinguistikaren helburu behinenetako bat. Zerk, noiz eta nola eragiten duen jakin nahi genuke, abiatzen ditugun ekinbideak zuzenak eta eraginkorrak izan daitezzen. Ondo dakigu, alabaina, oso eginkizun zaila eta konplexua dena faktoreen identifikatze eta ezagutze hori.

Helburu handinahi hori bistatik apartatu gabe, baina apalago eta neurritsuago arituta, azterlan honek hurbilpen estatistiko kuantitatibotik heldu nahi dio faktoreen identifikazioari, horretarako hainbat aldagai soziolinguistiko eta soziodemografiko baliatuta.

Ikerketarekin ondorengo galderari erantzuten ahaleginduko gara: Zerk azaldu dezake itxuraz antzekoak diren herriek erabilera-maila ezberdinak edukitzea? Edo, beste modu batera esanda, zein aldagai lotzen dira euskararen erabilerarekin? Ezagutza izan daiteke erabileraren iragarle ona, baina beste aldagai soziolinguistikoak baino egokiagoa al da hizkuntzen erabileraren konplexutasuna ulertzeko? Lan-ildo honetan, ikuspegi zabalago batetik, bestelako faktoreen eragina ere aztertu da. Baldintza soziolinguistikoetara mugatu gabe, faktore sozioekonomikoak eta soziodemografikoak ere aztertu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) herriak dira analisi-unitatea, eta horien kaleko erabilera-portzentajeak (EAEko udalerrri batzuetakoak) eta etxea edo familia giroko erabilera-portzentajeak (EAEko udalerrri guztietakoak) dauzkagu aztergai, baita bestelako zenbait aldagai ere: demografikoak, sozialak, ekonomikoak, etab. Udalerrria hartu da analisi unitatetzat, bai datu soziolinguistikoak bai datu soziodemografikoak udalerrri mailakoak direlako.

Horrenbestez, euskararen erabilera (etxekoa nahiz kalekoa) da aztergai nagusia (aldagai menpekoa). Gainerako aldagaiak askeak dira eredu estatistiko honetan, eta erabilerari buruzko azalpenak emateko baliatu dira.

Analisi zabal honen nondik norakoak eta emaitzak laburtzen dira dokumentu honetan, ondorio nagusiekin batera.

Dokumentura ekarri diren grafiko gehienetan ez dira udalerrrien izenik ageri, baina izan baditugu emaitzen datu-basean, eta erabilgarriak izan daitezke ondorengo azterketa kuantitatibo zein kualitatiboegi begira.

3. Metodologia



3.1. Aztertutako aldagaiak

Datuen iturri nagusia Euskal Estatistika Institutua (EUSTAT) da. Institutu horrek dituen herri mailako datu soziolinguistiko eta soziodemografikoak erabili ditugu. Horiekin batera, Soziolinguistika Klusterrak jasotako kale-erabilerari buruzko datuak ere ustiatu ditugu.

Iturri horietatik jasotako aldagai anitzekin sistema bat osatu da, non aldagai batzuen balioek eragina izan dezaketen beste aldagai batzuen balioetan. Lehenei, *aldagai aske* deritze, eta bigarrenei *menpeko aldagai*.

Eredu honetan, ahozko erabilera dugu aztergai nagusia, eta jakin nahi dugu zein beste aldagaik duten lotura aldagai nagusi honekin. Udalerrri mailako bi erabilera-datu ditugu esku artean: batetik, Soziolinguistika Klusterrak hainbat herritan egindako hizkuntza erabileraren kale-neurketaren informazioa, eta bestetik EUSTATEk Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsuan jasotzen duen etxeko hizkuntza erabileraren informazioa. Herri mailako kale-neurketa ez da herri guztietan egiten, 99 herritatik jaso dugu¹, baina etxeko hizkuntzaren erabilera datua zentsuan jasotzen denez EAeko herri guztietan dugu². Horrenbestez, bi dira aztergai ditugun menpeko aldagaiak: kaleko erabilera eta etxeko erabilera.

Aldagai askeen artean bi multzo bereiz daitezke: aldagai soziolinguistikoak eta aldagai soziodemografikoak.

Aldagai soziolinguistikoen artean bi dira nagusiak: hizkuntzaren ezagutza eta lehen hizkuntza.

Aldagai soziodemografikoen multzoa oso zabala da. Jatorriz, honako aldagai hauek baliatu ditugu: hezkuntza eredia, biztanleriaren adina, jatorri demografikoa, migrazio saldoa, udalerriko biztanleriaren tamaina, maskulinitate tasa, jaiotze-tasa, heriotza-tasa, hazkuntza begetatiboa, lan-mugikortasuna, hezkuntza-mugikortasuna, egoera zibila, familia eredia eta tamaina, ikasketa maila, langabezi tasa, establezimenduak, barne-produktu gordina, errenta, balio erantsi gordina, nekazal lurzorua banaketa eta luraren okupazioa.

Datu-iturburuetatik jaso ditugun aldagai aske horien konbinazioetatik eta datuen bila-kaera kontuan izatetik beste aldagai aske batzuk ere eratorri dira, gero analisisan erabili

¹ Abaltzisketa, Aduna, Aizarnazabal, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Amoroto, Andoain, Anoeta, Antzuola, Arama, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Ataun, Aulesti, Azkoitia, Azpeitia, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bergara, Bermeo, Berriatua, Berrobi, Bidania-Goiaz, Busturia, Deba, Dima, Durango, Ea, Eibar, Elduain, Elgeta, Elgoibar, Erandio, Ermua, Errenteria, Errezil, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Gatika, Gaztelu, Gernika-Lumo, Getaria, Gizaburuaga, Hernani, Hernialde, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Igorre, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larrabetzu, Larraul, Leaburu, Legazpi, Legorreta, Lekeitio, Lezo, Lizartza, Mallabia, Mañaria, Markina-Xemein, Mendaro, Muskiz, Mutriku, Muxika, Oiartzun, Oñati, Ondarroa, Ordizia, Orendain, Oresa, Orrio, Otxandio, Pasaia, Soraluze, Tolosa, Urkabustaiz, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zaldibar, Zaldibia, Zarautz, Zerain, Zestoa, Zigoitia, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zuia, eta Zumaia

² EUSTATEk eskainitako datuak EAeko udalerrri guztiei dagozkie, 251 udalerriei hain zuzen ere. Txiki izan ala handi, udalerrri guztien datuak erabili dira. Kale-erabilerari dagokionez, ordea, 99 udalerriren datuak ditugu eskura. Neurketa berariaz eskatu duten udalerrriak dira horiek, eta, ondorioz, bada nolabaiteko alborapena, interesa azaldu duten udalerrriak batez beste euskaldunagoak direlako eta gehienbat Gipuzkoakoak.

direnak. Horiek guztiek osatzen dute 400 aldagai aske baino gehiagoko sistema aberatsa. Adibidez, sistemako aldagaiak dira migrazio saldoak urteka, udalerriko barne-produktu gordina EAEko balorearekiko, errenten generoaren arabera ratioak, errenten banaketa EAEko dezilen arabera, edo epe jakinetan jaiotako emakumeek izandako haur-kopurua.

3.2. Analisi unitatea: udalerria

Udalerriak dira analisi-unitateak, eta inola ere ez gara norbanakoez ari. Oso garrantzitsua da hori kontuan izatea udalerrietako biztanleak oso ezberdinak baitira elkarren artean. Udalerrietan, batzuetan beste, 31.648 biztanle egon arren, eta EAEko udalerrien erdiek 1.713 biztanle edo gutxiago eduki arren, herritarren heren bat baino gehiago lurralde historikoetako hiru hiriburuetako batean bizi da. Azken batean, herri txikia izan nahiz hiri handia izan, batak zein besteak pisu bera izango dute gure analisian.

3.3. Analisi estatistikorako baliatutako teknikak

Azterlanak orientazioa sinkronikoa du batez ere, nahiz ikuspegi longitudinala ere aztertu den. Hau da, lehenengoz eta behin, ahozko erabileraren eta bestelako datu sozio-linguistikoen arteko egungo harremanean zentratuko da, horri lotutako hainbat faktore soziodemografikoen eta ekonomikoen analisia erantsita. Ondoren, neurri apalagoan, aldagaien arteko loturak denborarekin zer nolako aldaketa jasan duen aztertuko da.

Teknika hauek erabili dira:

- **Konglomeratuen teknika:** Analisisirako hartu diren aldagaien berezko ezaugarriak aztertuz teknika honek aukera ematen du udalerriak multzoka sailkatzeko, antzekotasunaren arabera³. Multzo horiek sakonago deskribatzeko bidea ere irekitzen da, horretarako faktoreen analisia baliatuz.
- **Faktore-analisia:** teknika osagarri gisa erabiliko da, azterketa sakonagoa egiteko. Aldagai asko elkarrekin erlazionatuta daudenez, komeni da horiek bilduz faktore nagusiak sortzea. Faktore horiek errealitatea deskribatzen lagunduko dute aldagaien dispersioa murriztuz. Hala, udalerriak zenbait ardatzetan kokatzen ditu teknika honek, aldagai ugariaren informazioa sintetizatzen eta hainbat ezaugarriren bidez bereizteko. Teknika hau baliagarria izaten da sortzen ari diren dinamikak deskubritzeko, nahiz eta zenbaitetan agerikoak ez izan.
- **Erregresio-analisia:** teknika hau erabiltzen da azterlanaren ardatz gisa aldagai bat ezartzeko eta gainerakoak azalpenetzko aldagaitzat hartzeko. Deskribapen soilerako baino, azalpenetarako baliatzen da teknika hau. Horrela, udalerrri bakoitzeko etxeko erabilera ezarriko da menpeko aldagai gisa, eta gainerako aldagaiak, hala soziolinguistikoak nola soziodemografikoak, aldagai independente gisa.


³ Konglomerazio hierarkikoaren teknika baliatu dugu, Ward-en konglomerazio-metodoaren bitartez; izan ere, antzeko tamaina duten multzoak sortzeko joera baitu, eta muturreko kasuak multzo txikietan isolatzea saihesten du.

3.4. Lotura eta kausalitate kontzeptuei buruzko oharra

Lotura izatea zentzurik zabalenean hartu behar da: euskararen erabilerarekin nolabaiteko erlazioaz ari gara, datuen arteko nola edo halako korrespondentziak edo korrelazioak (lotura estatistikoak). Hizkuntzen erabileraren eta gainerako aldagaien artean antzematen diren loturek ez dute ezinbestean kausalitaterik islatzen, eta ez dute berez menpeko mekanismo soziolinguistikorik azaltzen.

Landatartasunaren eta euskararen, edo ahultasun ekonomikoaren eta gaztelaniaren arteko loturarik topa bagenezake ere, inola ere ez dugu sinplifikazioan erori behar; hau da, ezin dugu ondorioztatu urbanizazioak euskararen erabileraren beherakada eragingo lukeenik, ez eta hobekuntza sozioekonomikoak gaztelaniaren erabilera murriztuko lukeenik ere.

4. Analisia



Metodologia atalean ikusi ahal izan dugu lau direla aztertu ditugun datu soziolinguistikoak: herriko biztanleriari zuzenean loturikoak batetik, populazioaren lehen hizkuntza, etxeko erabilera eta euskaraz aritzeko gaitasuna, eta, bestetik, herriko espazioan ari direnen kale-erabilera (ezin jakin hauek herriko biztanleak diren ala ez). Datu sinkroniko horiez gain, datu konparatiboak ere erabili ditugu (adibidez, udalerrri batean euskara etxean erabiltzen dutenen eta lehen hizkuntzatzat dutenen arteko aldea), edo bestelako lanketak eginez ere osatu ditugu, adibidez, datuak gurutzatuz, datuen bilakaera aztertuz, eta abar.

Azterketa horiek bideratu ahal izateko, beharrezkoa da aurrez datu soziolinguistiko ugari horiek multzokatzeko eta sintetizatzeko analisi-teknikak erabiltzea, metodologiaren atalean esan dugunez. Teknika horiek emango digute aukera hizkuntza erabileren, eta horiei lotutako aldagaien, gidalerro nagusiak aurkitzeko.

Lehenbizi, kale-erabileraren datuen analisia egin dugu. Bigarrenik, udalerrien multzokatzeko soziolinguistikoa proposatu dugu, udalerrietako aldagai soziolinguistikoaren balioetan oinarri hartuta, eta konglomeratuen analisiaren teknika baliatuta. Hirugarrenik, informazio soziolinguistikoa sintetizatzeko asmoa faktoreen bilaketara orientatu dugu, hartara eskura ditugun aldagai soziolinguistikoaren eta soziodemografikoaren antzekotasunak azalertzeko eta horrela udalerrien bereizketa soziolinguistikorako faktore esanguratsuenak nabarmentzeko. Laugarrenik, etxeko erabileraren eta lehen hizkuntzaren arteko erlazioan sakondu dugu. Bosgarrenik, populazioaren fluxuak kontuan hartuta, zonalde geografikoaren eragin-eremu desberdinak proposatu ditugu. Seigarrenik, udalerrien faktore soziodemografikoaren analisia egin dugu.

4.1. Kale-erabileraren azterketa

Esan dugunez, ez dugu udalerrri guztietako kale-erabileraren daturik. Laurogeita hemeretzi udalerritako datuak aztertu ditugu, urteetan zehar propio eskatu dutenenak (Altuna, 2017, 2018). Udalerrri horietako asko Gipuzkoan kokatuta daude eta euskaldun samarrak dira ia denak. Batez beste, behatutako udalerrietan euskara etxetik jaso dutenen proportzioa % 56,2 da, euskaldunen proportzioa % 73,7, eta neurtutako herrien kale-erabilera % 60,2 da. Datu orokorragoekin alderatuz gero, EAEn hurrenez hurren % 18,4, % 42,2 eta % 15,4 dira.

– 1. taula –

Behatutako udalerrien eta EAEko udalerrien batz besteko lehen hizkuntza, hizkuntza gaitasuna, eta kale-erabilera: euskara

	Lehen Hizkuntza	Hizkuntza gaitasuna	Kale-erabilera
Behatutako udalerrriak	%56,2	%73,7	%60,2
EAE	%18,4	%42,2	%15,4


Aldiz, etxeko erabileraren datuak, zentsutik jaso direnez, udalerrri guztietakoak dira (251 herrietakoak). Azterketa honi begira, udalerrri erdaldunagoen kale-erabilera datuak ez izateak galarazi egiten du tipologia guztietako errealitatea ezagutzea.

Kale-erabilera eta hizkuntza gaitasuna

Lehenik eta behin, kalean behatutako erabilera eta herriko euskaldunen proportzioaren arteko korrelazioa aztertu dugu. 1. grafikoan neurtutako 99 herriak kokatu ditugu. Ardatz horizontalak ezagutza adierazten du, eta ardatz bertikalak erabilera: zenbat eta eskuinago, orduan eta euskararen ezagutza handiagoa; zenbat eta gorago, orduan eta erabilera altuagoa. Grafikoak erakusten du eskuinaldean dauden herriak gorago daudela, eta ezkerrean daudenak beherago. Beraz, zenbat eta udalerrri euskaldunagoa izan, orduan eta handiagoa da euskararen kale-erabilera. Hala ere, banaketa ez da lineala eta uniformea, eta udalerrien artean hizkuntza portaerari buruzko desberdintasunak ageri dira.

– 1. grafikoa –

Behatutako udalerrien kale-erabilera hizkuntza gaitasunaren arabera (%)



Kale-erabilera adinaren arabera

Bestalde, kale-erabilerearen datu orokorren eta adin-taldekakoen artean zer harreman dagoen aztertu da (ikus 2., 3., 4. eta 5. grafikoak). Kontuan hartu behar da erdiko marra diagonalak erabilera orokorra eta adin-taldeko erabilera espezifikoak berdinez lireratekeen puntuak adierazten duela. Hala, marraren goiko aldean geratzen diren puntuak esan nahi dute udalerrri horietan adin-taldekakoen erabilera altuagoa dela udalerrriaren erabilera orokorra baino. Aldiz, marraz azpitik daudenetan, adin-tarte horretako erabilera txikiagoa da erabilera orokorra baino.


Oinarrizko kokapen horrez gain, badira xeheago azter daitezkeen puntuak ere. Hona hemen horietako batzuk:

- Haurren erabilera batez besteko orokorretik gora kokatzen da ia udalerri guztietan, hau da, haurrek proportzioan gainontzeko biztanleek baino gehiago dabilte euskara.
- Euskararen eta gaztelaniaren erabilera antzekoa den udalerrietan aldentzen da gehien haurren erabilera batez bestekotik.
- Aitzitik, gazteei dagokienez, banaketa ez da hain homogenea eta dispersioa handiagoa da. Oro har, udalerri euskaldunetan gazteen erabilera batez bestekotik gora dago, eta, alderantziz, udalerri erdaldunagoetan, ohikoagoa da gazteen erabilera batez bestekotik behera egotea.
- Helduen kasuan, ia beti marraz azpiko aldetik kokatzen da helduen erabilera, nahiz eta ez den asko aldentzen batez bestekotik (helduen elkarriketek, ugariek izanda, pisu handia baitute).
- Antzera samar gertatzen da adinekoekin, baina nabarmentzekoa da udalerri euskaldunetan adinekoen erabilera orokorraren ginetik dagoela.

Oro har, adin-taldeari dagokion erabilera gehiago aldentzen da batez bestekotik euskararen eta erdararen erabilera antzeko samarra den udalerrietan. Joera hori adin-talde guztietan ikusten da, nola goraka hala beheraka.


– 2. grafikoa –

HAURREN kale-erabilera, erabilera orokorraren arabera (%)




– 3. grafikoa –


GAZTEEN kale-erabilera, erabilera orokorraren arabera (%)



– 4. grafikoa –
HELDUEEN kale-erabilera, erabilera
orokorraren arabera (%)



– 5. grafikoa –
ADINEKOEN kale-erabilera, erabilera
orokorraren arabera (%)



Kale-erabilera eta haurren eragina


Haurren presentziak nabarmen eragiten du euskararen erabilera gora egitea, izan ere, haurrak elkarrizketetan presente daudeneko erabilera batez bestekoa baino altuagoa da udalerrri ia guztietan. Esan behar da baita ere haurren faltan batez bestekoa baino baxuagoa dela erabilera. Hala ere, zonalde erdaldunenetan, haurren arteko erabilera (helduen presentziarik gabe), erabilera orokorra baino baxuagoa da. Bestalde azpimarratzekoa da honakoa: udalerrri oso euskaldunetan izan ezik, haurrek beraien artean gutxiago egiten dute euskaraz nagusiekin daudenean baino.

Kale-erabilera eta lehen hizkuntza

Etiket euskara jaso dutenen proportzioa handia den udalerrietan, gehienetan are eta handiagoa da euskararen kale-erabilera (ikus 6. grafikoa). Lehen hizkuntzaren proportzioak behera egin ahala, hala egiten du euskararen erabilera, baita proportzio horren azpitik ere kasu askotan.

– 6. grafikoa –

Behatutako udalerrien kale-erabilera lehen hizkuntzaren arabera (%)



Kale-erabilera eta etxeko erabilera

Hizkuntzen erabilera buruzko bi datu horiek ditugu udalerrri mailan. Ez dugu bestelako esparruetan sistematikoki jasotako datu orokorturik. Ezbairik gabe interesgarria da biek erakusten diguten argazkiari erreparatzea, baina kontuan hartu behar dugu ezberdinak direla azterketa eremuari nahiz datu-bilketaren metodologiari dagokienez. Gogora ditza-gun ezberdintasunak:

- Kale-erabilera behaketa bidez jasotzen da: behatzaileek, elkarrizketak entzun ahala, horietako bakoitzean nagusitzen den hizkuntza jasotzen dute. Aldiz, etxeko erabilera inkesta bidez jasotzen da, eta norberak bere etxean erabiltzen duen hizkuntza zein den adierazten du. 7. grafikoa, etxean euskara erabiltzen dutenen portzentajeak adierazi dira X ardatzean⁴, eta Y ardatzean, berriz, kaleko erabilera portzentajeak.
- Kale-erabilera ez da ezinbestean udalerrian bizi direnen erabilera bere horretan islatzen, kalean behatutako elkarrizketen erabilera jasotzen baita, bertakoa nahiz

⁴ Bi hizkuntza (euskara eta gaztelania) erabiltzen dituztenak ez dira grafikora ekarri.


kanpokoa izan hiztuna. Etxeko erabilera, ordea, herrian erroldatuta dauden biztanleen informaziotik eratortzen da.

- Kale-erabileraren datua kalkulatzeko ez da herritarren adin-multzoen banaketa proportzionala erabiltzen, kaleko hiztunen adina, behatutako unean eta espazioan hizketan ari zirena baita; aldiz, etxeko erabileraren oinarrian badago herritarren adin-multzoen banaketa proportzionala.
- Kale-erabilera gertukoaren artekoa eta sarritan adinkide berekoen artean gertatzen da. Aldiz, etxeko erabilera familia eremuko da, normalean belaunaldi ezberdinen artekoa.

Zenbat eta handiagoa izan etxeko erabilera, orduan eta handiagoa da kalekoa, argi ikus daitekeenez 7. grafikoan. Nabarmentzekoa da, bestalde, kaleko erabilera etxekoa baino altuagoa dela udalerri gehienetan. Gainera, alde hori ez da murrizten etxean euskaraz asko hitz egiten den udalerrietan.

– 7. grafikoa –

Behatutako udalerrien kale-erabilera etxeko hizkuntzaren arabera (%)



4.2. Multzokatze soziolinguistikoa

EAEko udalerrietako datu soziolinguistikoen aniztasuna eta emaitzen interpretazioa sinplifikatzeko modu bat udalerriak tipologiaren arabera bereiztea da. Hori Mapa Soziolinguistikoa egiteko erabili da, eta mapa horretan udalerriak lau gune soziolinguistikotan banatzen dira, euskararen gaitasun-mailaren arabera:

- **1. gunean**, biztanleriaren % 20 baino gutxiago da euskalduna
- **2. gunean**, biztanleriaren % 20–50 bitartean da euskalduna
- **3. gunean**, biztanleriaren % 50–80 bitartean da euskalduna
- **4. gunean**, biztanleriaren % 80 edo gehiago da euskalduna

Udalerrien multzo soziolinguistikoak egiteko beste modu bat da, ezagutzaren datuak ez ezik, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren emaitza enpirikoetan oinarritzea, eta analisisian datu orokorrak eta adin-taldeka gurutzatuak ere aintzat hartzea konglomeratuen teknikaren bidez⁵.

Nabarmentzekoa da bi multzokatze horiek (soilik gaitasuna edo bestelako aldagaiak ere kontuan hartuta) antzeko emaitza ematen dutela 1., 3., eta 4. gune soziolinguistikoetan. Parekidetasun horretan oinarrituta, esan daiteke gaur-gaurkoz hiru gune horietan udalerrien aniztasun soziolinguistikoa soilik hizkuntza gaitasunari erreparatuta deskriba daitekeela.

Aldiz, 2. gune soziolinguistikoan hizkuntza gaitasuna ez da aldagai aski adierazgarria errealitate soziolinguistikoa identifikatzeko. Azterketa hori “udalerrien multzokatzea” atalean azalduko dugu xeheago.

Gauzak horrela, beharbada etorkizunean, euskaldunen ezaugarriak heterogeneoagoak izan ahala, gainontzeko hiru guneetan ere gaitasunaz gain bestelako aldagaiak ere behar dira banaketa soziolinguistikoa azaltzeko.

Hemen aurkeztuko dugun udalerrien multzokatze soziolinguistikoa ez da, berez, xedea, baizik eta tresna bat, gero emaitzak interpretatu ahal izateko.

Udalerrien multzokatzea

Azterketan, udalerrien bi multzo soziolinguistiko nagusi egitea proposatzen da, eta multzo nagusi horiek lau azpimultzotan ere banatu dira. Multzokatze hori honako aldagai hauen arabera egin da: lehen hizkuntza, hizkuntza gaitasuna eta erabilera (etxekoa edota kalean behatutakoa). Taulan ikus daitekeenez, aldagai horiek balio korrelatiboak hartzen dituzte multzo banaketan, eta nabarmentzekoa da emaitzaren koherentzia.

Jarraian, multzo horien izenak eta identifikatzeko laburdurak azalduko ditugu. Oro har, euskara “E” letrarekin adierazten da, gaztelania “G” letrarekin, bi hizkuntzak “EG” letrarekin, “+” ikurrak hizkuntzaren nagusitasuna adierazten du, eta “++” ikurrek erabateko nagusitasuna:

<p>(E) Euskararen presentzia handiagoa duten udalerriak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ (E+) Euskara nagusi den udalerriak ▶ (EG) Euskara gaztelania baino zertxobait gehiago 	<p>(G) Gaztelaniaren presentzia handiagoa</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ (G+) Gaztelania nagusi ▶ (G++) Gaztelania erabat nagusi
---	---

⁵ Ikus lan honen autore batek soziolinguistikako konglomeratuen teknika erabiltzeari buruz egindako hausnarketa sakonagoak eta teknika hori termino teoriko edo enpirikoen arabera aplikatzeari buruzko eztabaida bat biltzen dituzten erreferentziak (Sorolla & Vila i Moreno, 2015; Vila & Sorolla, 2017)

Mapa Soziolinguistikoa eta udalerrien multzokatzea: bien arteko alderaketa

Lehen esan bezala, oro har 1., 3., eta 4. gune soziolinguistikoetako udalerriak nahiko bat datoz "G++", "EG" eta "E+" multzoetan ditugun udalerriekin. Izan ere, 1. gune 10 udalerriak "G++" multzoan kokatzen dira, 3. gune 89 herritik 78 "EG" multzoan kokatzen dira, eta 4. gune 67 herritik 56 "E+" multzoan (ikus 2. taula).

Nabarmendu behar da 3. eta 4. guneetan multzo nagusitik kanpo geratzen diren udalerriak banaketa portzentajearen muga-mugan kokatzen direla. Esate baterako, 3. gune "E+" multzoan dauden 6 herrietan euskaldunen kopurua %77-80 bitartekoa da. 2. taulan jaso dugu Mapa Soziolinguistikoan aurkezten diren gune soziolinguistikoaren eta ikerketa honetan berariaz egindako multzoen arteko alderaketa.

Hala ere, bi banaketen arteko alderik nabarmenena 2. gunea eta G+ multzoa konparatzean agertzen da. Mapa soziolinguistikoan 85 herri kokatzen dira 2. gunean, baina parean legokeen G+ multzoan horietatik 15 baino ez daude. Gainontzeko 67ak G++ multzoan ageri dira. Nolabait, gaitasunaz gain bestelako aldagai soziolinguistikoak kontuan hartuz gero, udalerrien sailkapenak gaztelania erabat nagusi den udalerrien aldera egiten du.

– 2. taula –

Mapa Soziolinguistikoa eta aldagai soziolinguistikoaren multzoak (herri kopurua)

	1. gunea < %20	2. gunea %20-50	3. gunea %50-80	4. gunea %80 <	GUZTIRA
Gaztelania erabat nagusi (G++)	10	67			77
Gaztelania nagusi (G+)		18	5		23
Euskara gaztelania bezainbeste (EG)			78	11	89
Euskara nagusi (E+)			6	56	62
Guztira	10	85	89	67	251

Udalerri-multzoen deskribapena

3. taulan ikus daitekeenez, oro har, **euskara nagusi** duten udalerrien multzoan (**E+**), batez beste, populazioaren hiru laurden hasierako euskal hiztun da (% 74,5), % 16,5 dira hasierako gaztelaniako hiztunak, % 86,4k badaki euskaraz hitz egiten, % 70,3k etxean euskara erabiltzen du, eta kalean behatutako elkarrizketen % 84,5 euskaraz izaten dira.

Euskarak gaztelaniak bezainbesteko presentzia (EG) duen udalerrietan, batez beste, populazioaren erdia hasierako euskal hiztun da (% 47,6), % 39,6 dira hasierako gaztelaniako hiztunak, eta populazioaren bi herenak (% 68,9) badaki euskaraz hitz egiten. Hala ere, populazioaren herenak pasatxok (% 37,9) soilik erabiltzen du nagusiki etxean, baina kaleko erabilera behaketen erdira (% 49,5) iristen da.

Gaztelania nagusi (G+) duten udalerrietan, batez beste populazioaren bosten bat soilik (% 18,2) da hasierako euskal hiztun, % 69,2 dira hasierako gaztelaniako hiztunak, ia erdiak (% 45,3) badaki euskaraz. Etxeko erabilerak ehuneko txikiagoak ditu (% 11,8).

Gaztelania erabat nagusi (G++) den udalerrietan, hasierako euskal hiztunek eta euskararen etxeko erabilerak presentzia txikiagoa duten arren (% 3,7 eta % 2,5, hurrenez hurren), populazioaren laurden batek badaki euskaraz hitz egiten (% 27,3).

3. taulako datuei erreparatuta, badira nabarmendu beharreko xehetasunak:

- Lau udal-multzoetan gaitasunaren portzentajea da altuena, eta etxeko erabilera da baxuena. Ia beti honako hurrenkera betetzen da portzentajeetan, altuenetik txikienara: ezagutza, kale-erabilera, lehen hizkuntza, etxeko erabilera.
- Udal-multzo bakoitzean lehen hizkuntzaren, kaleko erabileraren, eta etxeko erabileraren artean ez dago alde handirik. "E+" udalerrietan hiru adierazleak % 70-85 bitartean daude, "EG" udalerrietan % 35-50 bitartean, "G+" udalerrietan % 12-18 bitartean, eta "G++" udalerrietan % 3-9 bitartean. Beraz, kale-erabileraren portzentajeak gertutasun handiagoa du lehen hizkuntzarekin eta etxeko hizkuntzarekin, gaitasunarekin baino.
- Adierazle soziolinguistiko horiekiko aldakortasun handiena hizkuntza gaitasunak du. Nabarmentzekoa da G++ udal-multzoan hizkuntza gaitasuna % 27,3koa dela. Multzo honetako (eta baita G+ multzoko) gaitasunaren portzentajearen eta beste aldagai soziolinguistikoaren artean alde handia dago. Azterketa enpirikoaren bitartez ondorio horretara ailegatu garelarik, egokia iruditzen zaigu Xabier Isasik egindako galdera hona ekartzea (Isasi, 2000): "Zein izango litzateke, bada, euskararen bizi iraupenerako ezinbesteko euskaldunen proportzio txikiena *-atalase maila-*? Xabier Isasik, J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegiren* eredu matematikoa oinarri hartuta (Txillardegi, 2001), % 33 inguruan ezartzen zuen gaitasun-mailaren atalasea. Horren arabera, beharrezkoa da nolabait gutxieneko hori gaintzea euskararen erabileran aldaketa kualitatibo esanguratsua gertatzeko.

– 3. taula –

**Multzo soziolinguistiko bakoitzarekin lotutako balio soziolinguistikoak.
Udalerrien batez bestekoa**

	4 multzo			
	E+	EG	G+	G++
Lehen hizkuntza (LH): euskara	74,5	47,6	18,2	3,7
Hizkuntza gaitasuna (HG): euskara	86,4	68,9	45,3	27,3
Etxeko hizkuntza nagusia (EH): euskara	70,3	37,9	11,8	2,5
Kale-erabilera (KE): euskara (soilik behatutako udalerrietan)	84,5	49,5	14,7	8,8

Udalerrien multzo soziolinguistikoak 3. taulako lau ezaugarri horien arabera definitzen dira. Horiez gain, multzokatzean eragin txikiagoa duten beste aldagai soziolinguistiko batzuei erreparatuz gero (ikus 4. taula), bestelako informazio interesgarria ere izan dezakegu.

Euskarazko gaitasunari erreparatuta, euskaldun berrien nahiz ia-euskaldunen (euskaraz ulertzen dute, baina ez dakite hitz egiten) proportzioak handiagoak dira gaztelaniak presentzia handiagoa duen udalerrietan (G+ eta G++).

Euskaldun berrien proportzioa (baita ia-euskaldunena ere) gaztelaniaren presentzia handiena duten udalerrietan handiagoa izatearen arrazoia zera da, udalerrri horietan, populazioaren proportzio handi batek ez duela euskara lehen hizkuntzatzat, eta beraz, euskararen bizitasuna udalerrri horietan ahulagoa izan badaiteke ere, euskaldun berri edo ia-euskaldun bihur daitekeen populazioaren bolumena handiagoa dela. Udalerrri horietan, hezkuntza-sistemaren bitartez orokortu da gehiago euskararen ezagutza, erabatekoa edo partziala, haur eta gazteen artean.

Gaztelania nagusi den udalerrietan, euskaraz ez dutela hitz egiten eta ez dutela ulertzen diotenak % 37,6 gutxiago dira, abiapuntuko (1981eko) zenbatekoak oso handiak zirelako; baina, aitzitik, euskararen presentzia handiena duten udalerrietan, euskaraz ez dakitenen ehunekoak gora egin du, gutxi bada ere (% 2,6).

– 4. taula –

Multzo soziolinguistikoak. Euskararen gaitasuna.

	4 multzo			
	E+	EG	G+	G++
Euskaldun berriak (HG euskara-LH euskara)	6,3	12,2	18,2	18,9
Ia-euskaldunak (euskara ulertzen dutenak)	6,3	13,1	21,2	19,5
Erdaldun elebakarren hazkundea 1981-2016 aldian	2,6	-5,6	-16,3	-37,6

HG euskara: Hizkuntza gaitasuna, euskara ongi dakitenak. LH euskara: Lehen hizkuntza euskara dutenak.

Horretaz gain, **belaunaldi batetik bestera dauden gaitasun-aldeak oso adierazgarriak dira**: euskarak presentzia handiena duen udalerrietan (E+), bai adinekoek bai haurrek populazioaren batez bestekoaren antzeko gaitasun-mailak izaten dituzte, baina gaztelania erabat nagusi den udalerrietan (G++), aldeak oso garrantzitsuak dira: haurren gaitasun-maila batez bestekoarena baino hiru aldiz handiagoa da eta, aitzitik, adinekoen gaitasun-maila udalerriko batez bestekoaren mailaren bosten bat da (ikus 5. taula).

– 5. taula –

Multzo soziolinguistikoak. Gaitasuna adin-taldeka.

	4 multzo			
	E+	EG	G+	G++
>=65 urtekoen euskara gaitasuna batez bestekoarekin alderatuta	1,0	0,9	0,6	0,2
2-14 urte artekoen euskara gaitasuna batez bestekoarekin alderatuta	1,1	1,4	1,9	3,0

Lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren aldagaiak gurutzatu dira 6. taulan, eta alde oso nabarmenak ageri zaizkigu multzoen artean. Adierazgarria da, adibidez, gaztelania erabat nagusi den udalerrietan (G++), euskara lehen hizkuntza dutenen % 44,5ek ez dutela euskara etxean erabiltzen (*LH:euskara>EH:gaztelania*); euskara nagusi den udalerrietan (E+), ordea, euskararen erabilera baztertzan duten hiztunen sektore hori % 4,6ra murrizten da. Udalerrri horietan, lehen hizkuntza gaztelania izanik etxean gaztelania soilik erabiltzen dutenak % 77,7 dira (*LH:gaztelania>EH:gaztelania*); aldiz, gaztelania erabat nagusi den udalerrietan (G++) % 94,5era iristen dira.

Euskarak presentzia handiagoa duen udalerrietan euskaldun berrien proportzioa txikiagoa delako ideia osatu egingo dugu errealitatearen irudi hobea izateko. Bi aldagaiak gurutzatuz gero, zera ikusten dugu, euskara nagusi den udalerrietan (E+), lehen hizkuntza gaztelania dutenen ia erdiak (% 43,0) euskaraz hitz egiten ikasi duela (*LH:gaztelania>Euskaldunak*). Aitzitik, populazio gaitua erakartzeko (euskaldunak sortzeko) ahalmen hori % 23,1 da gaztelania erabat nagusi den udalerrietan (G++). Horrela, bada, euskaldun berrien *sortze-tasak* askoz positiboagoak dira euskararen nagusitasun handiagoko udalerrietan, baina udalerrri horietan euskara lehen hizkuntza dutenak gehiengoa izaki, euskaldun berrien sorkuntzak proportzio txikiagoa hartzen du populazioaren guztizkoan. Aitzitik, gaztelaniak presentzia handiena duen udalerrietan, euskararen bizitasuna txikiagoa den arren, eta, hortaz, euskaldun berrien *sortze-tasa* txikiagoa den arren, euskara lehen hizkuntza ez dutenen bolumena askoz handiagoa denez, euskaldun berrien guztizko proportzioa handiagoa da.

– 6. taula –

Multzo soziolinguistikoak. Zenbait aldagairen gurutzaketa.

	4 multzo			
	E+	EG	G+	G++
LH: euskara → EH: euskara	88,7	71,0	49,8	31,7
LH: euskara → EH: gaztelania	4,6	10,9	25,7	44,5
LH: euskara eta gaztelania → EH: gaztelania	21,3	29,4	39,1	54,5
LH: gaztelania → EH: gaztelania	77,7	86,0	91,5	94,5
LH: gaztelania → HG: euskara	43,0	34,9	29,8	23,1

LH: Lehen Hizkuntza. EH: Etxeko Hizkuntza. HG: Hizkuntza Gaitasuna.

Aurreko taulen osagarri gisa, eta EAEko udalerrrien barrutira mugatuta, 7. eta 8. tauletan udalerrietako populazio-fluxuen ezaugarriak jasotzen dira, hau da, herritarrak zein herritatik zein herritara mugitzeko joera duten. Udalerrrien arteko harreman edo joera horiek, zein zeinen *erreferentzia* diren azalduz jaso dugu.

Tauletako datuak interpretatze aldera, har dezagun 7. taulako lehenengo zutabea: Udalerrri euskaldunetako herritarrek (E+) emigratzen dutenean, xede- edo erreferentzia-herrien populazioaren %45,3k du, batez beste, euskara lehen hizkuntza. Era berean, E+ udalerrri horietatik % 65,0ko gaitasuna duten udalerrietara emigratzen da. Gogora dezagun E+ udalerrri horietan populazioaren % 74,5ek duela euskara lehen hizkuntza, eta % 86,4k badakiela euskaraz hitz egiten (ikus 2. taula).

Aldiz, gaztelaniak erabateko nagusitasuna duen kasuetan (G++), % 30,9ko gaitasuna duten udalerrietara emigratzen da. Jatorrizko udalerrietan, G++ multzoan alegia, gaitasuna % 27,3koa da.

Modu beretsuan uler daitezke immigrazioari buruzko datuek ere (8. taulan). Hala, adibidez, udalerrri euskaldunek (E+) jasotzen dituzten herritarren jatorri-udalerriko populazioaren %45,5ek du, batez beste, euskara lehen hizkuntza. Eta horrela ulertu behar dira taulako beste portzentajeak ere, nola lehen hizkuntza euskara dutenen hala etxeko erabileran ere.

Oro har, nabarmendu behar dugu ez dituela soilik udalerrriak berak betetzen udalerrien multzo soziolinguistiko jakin batean kokatzeko ezaugarriak, baizik eta erreferentziako udalerriek ere betetzen dituztela ezaugarri soziolinguistiko jakin batzuk, hau da, populazioaren gehiengoaren emigrazioaren xede diren udalerriek edo barne-immigrazioaren abiapuntu direnek (beti ere, EAE barruan).

– 7. taula –
Multzo soziolinguistikoak. Emigrazioko erreferentziako udalerrriak.

	4 multzo			
	E+	EG	G+	G++
Nora: LH euskara	45,3	31,3	16,6	6,8
Nora: HG euskara	65,0	54,0	42,0	30,9
Nora: EH euskara	38,3	24,7	12,0	4,8

LH: Lehen Hizkuntza. **HG:** Hizkuntza Gaitasuna. **EH:** Etxeko Hizkuntza

– 8. taula –
Multzo soziolinguistikoak. Immigrazioko erreferentziako udalerrriak.

	4 multzo			
	E+	EG	G+	G++
Nondik: LH euskara	45,5	32,3	17,3	6,8
Nondik: HG euskara	65,2	54,9	42,7	31,0
Nondik: EH euskara	38,3	25,4	12,5	4,8

LH: Lehen Hizkuntza. **HG:** Hizkuntza Gaitasuna. **EH:** Etxeko Hizkuntza

Udalerriak multzoka

Honako hau da udalerrien zerrenda, dagokien multzo soziolinguistikoaren arabera antolatuta (zutabetan, goitik behera, eta ezkerretik eskuinera).

Euskara nagusi den udalerrien multzoa (E+):

Abaltzisketa	Aduna	Aia
Aizarnazabal	Ajangiz	Albiztur
Alegia	Alkiza	Altzaga
Altzo	Amezketza	Amoroto
Arratzu	Asteasu	Ataun
Aulesti	Azkoitia	Azpeitia
Baliarrain	Beizama	Belauntza
Berastegi	Berriatua	Bidania-Goiatz
Elantxobe	Elduain	Ereño
Errezil	Errigoiti	Etxebarria
Ezkio-Itsaso	Gabiria	Gaintza
Garai	Gaztelu	Getaria
Gizaburuaga	Idiazabal	Ikaztegieta
Ispaster	Kortezubi	Larraul
Leaburu	Lekeitio	Lizartza
Markina-Xemein	Mendata	Mendexa
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	Murueta	Mutiloa
Muxika	Nabarniz	Ondarroa
Orendain	Orexa	Segura
Zaldibia	Zegama	Zerain
Zestoa	Ziortza-Bolibar	

Euskarak gaztelaniak bezainbesteko presentzia duen udalerrien multzoa (EG)

Abadiño	Amorebieta-Etxano	Andoain
Anoeta	Antzuola	Arama
Aramaio	Arantzazu	Areatza
Aretxabaleta	Arrankudiaga	Arrasate
Arrieta	Artea	Astigarraga
Atxondo	Bakio	Beasain
Bedia	Bergara	Bermeo
Bérriz	Berrobi	Busturia
Deba	Dima	Durango
Ea	Eibar	Elgeta
Elgoibar	Elorrio	Eskoriatza
Forua	Fruiz	Gamiz-Fika
Gatika	Gautegiz Arteaga	Gernika-Lumo
Hernani	Hernialde	Hondarribia
Ibarra	Ibarrangelu	Igorre
Irura	Itsasondo	Izurtza
Larrabetzu	Lazkao	Legazpi

Legorreta	Leintz-Gatzaga	Lemoa
Lemoiz	Lezama	Lezo
Mallabia	Mañaria	Maruri-Jatabe
Meñaka	Mendaro	Morga
Mundaka	Mungia	Mutriku
Oiartzun	Olaberria	Oñati
Ordizia	Orio	Ormaiztegi
Orozko	Otxandio	Soraluze
Sukarrieta	Tolosa	Ubide
Urnieta	Urretxu	Usurbil
Villabona	Zaldibar	Zarautz
Zeanuri	Zeberio	Zizurkil
Zumaia	Zumarraga	

Gaztelania nagusi den udalerrrien multzoa (G+):

Arakaldo	Barrika	Berango
Derio	Donostia	Ermua
Errenteria	Galdakao	Gorliz
Irun	Iurreta	Lasarte-Oria
Laukiz	Legutio	Loiu
Pasaia	Plentzia	Sondika
Sopela	Ugao-Miraballes	Urduliz
Zamudio	Zaratamo	

Gaztelania erabat nagusi den udalerrrien multzoa (G++):

Abanto Zierbena	Agurain	Aiara
Alegría-Dulantzi	Alonsotegi	Amurrio
Añana	Armiñón	Arraia-Maeztu
Arratzua-Ubarrundia	Arrigorriaga	Artzentales
Artziniega	Asparrena	Balmaseda
Barakaldo	Barrundia	Basauri
Bastida	Berantevilla	Bernedo
Bilbo	Elburgo/Burgelu	Elciego
Elvillar/Bilar	Erandio	Erribera Beitia
Erriberagoitia	Eskuernaga	Etxebarri
Galdames	Gasteiz	Gaubea
Getxo	Gordexola	Güeñes
Harana	Harana	Iekora
Iruña Oka	Iruraiz-Gauna	Kanpezu
Karrantza	Kripan	Kuartango
Lagrán	Laguardia	Lanciego/Lantziego
Lanestosa	Lantarón	Lapuebla de Labarca
Laudio	Leioa	Leza
Mañueta	Moreda Araba	Muskiz
Navaridas	Okondo	Ortuella
Oyón-Oion	Peñacerrada-Urizaharra	Portugalete

Samaniego
Sestao
Trucios-Turtzioz
Zalduondo
Zierbena

San Millán/Donemiliaga
Sopuerta
Urduña/Orduña
Zalla
Zigoitia

Santurtzi
Trapagaran
Urkabustaiz
Zambrana
Zuia

4.3. Faktore soziolinguistikoak

Udalerrien aniztasun soziolinguistikoa faktore gutxitan sintetizatze aldera, analisi faktoriala aplikatu dugu. Analisi honetan eskura ditugun erroldako aldagai soziolinguistikoak erabili dira, bai eta beraien arteko konbinazioak, bilakaera, generoarekin eta adinarekin eginiko gurutzaketak, eta horien guztien konposaketak.

Aldagai horien artean korrelazio oso altua dago. Hori dela eta, faktore gutxirekin aldakuntza asko sintetizatzen dira: soilik bi faktoreekin aldakuntzen ia erdia biltzen da.

Sintesi gaitasun handiena duen faktoreari **euskalduntasuna** deitu diogu. Hori hartuko dugu lehen faktoretzat, aldakuntzaren % 35,2 sintetizatzen baitu. Euskalduntasuna honako aldagaiek osatzen dute: euskararen gaitasun-mailak ahoz eta idatziz, lehen hizkuntza euskara dutenen kopuruak, eta etxeko erabilerak. Zenbat eta balore handiagoa duten ezaugarri horiek, orduan eta agerikoagoa da euskalduntasunaren faktorea. Euskararen presentzia handieneko udalerrietan beste ezaugarri hauek ere nabarmentzen dira: 35 urtetik gorako euskararen ezagutza (35 urtez azpitik orokortuagoa da ezagutza hori), jatorrizko euskaldunek etxeko erabilerari eustea, eta erreferentziazko udalerriak (migrazioetan) ere euskaldunak izatea.

Adinari dagokionez, batetik, euskalduntasun handiko eta urriko udalerriak alderatuz gero, helduen eta adinekoen euskararen ezagutzan nabari da bereziki aldea, eta ez horrenbeste gazteen ezagutzan. Erlazio hori adinez nagusi direnen artean nabarmentzea ahultasun sintomatizat har daiteke euskararen biziberritzeari begira. Bestetik, euskalduntasun urriko udalerrietan, gazteak dira euskara gehien dakitenak. Hori nolabaiteko biziberritze prozesuaren ondorioz etorri da, eta aukeratzat hartu behar da.

Euskalduntasuna genero femeninoarekin lotuago ageri zaigu. Oro har, eta ñabardurak ñabardura, euskarak presentzia handiagoa erakutsi du emakumeen artean, gizonen artean baino. Badirudi emakumeek gehixeago egin dutela aurrera euskara berenganatzeko prozesuan. Dinamika hori berresten bada, hizkuntzaren bizitasunaren adierazgarria izango litzateke; izan ere, hainbat ikertzailearen arabera, gizonak atzeratu egiten dira aldaketa soziolinguistikoko prozesuetan eta emakumeek lehenago eskuratzen dituzte prestigiosko aldaerak (Boix-Fuster & Vila i Moreno, 1998; Eckert & McConnell-Ginet, 1992; Holmes & Meyerhoff, 2003; Pujolar, 1997).


Bigarren faktoreak sintesi ahalmen urriagoa du (% 8,1), eta formulatzen zailagoa da, baina aldi berean hain agerikoa ez den fenomenoak erakusten du. Esan daiteke **ezagutzaren eta etxeko erabileraren arteko bat-etortzea** adierazten duela, eta horrela formulatu dugu. Euskararen ezagutza eta etxeko erabileraren antzekoak direnean hartzen ditu balio positibo altuak bat-etortze horrek. Hori gertatu ohi da hizkuntza bakarraren presentzia

nabarmetzen denean, izan euskara izan gaztelania. Udalerri oso euskaldunetan gerta daiteke hori (denek edo ia denek dakite euskaraz, eta (ia) guztiek egiten dute euskaraz etxean), edo oso erdaldunetan (oso gutxi dakite euskaraz, eta (ia) inork ez du euskaraz egiten etxean). Aldiz, ezagutzaren eta etxeko erabileraren artean alde handia dagoenean balio negatiboak hartzen ditu. Hori gertatzen da erabilera nahasiagoa den udalerrietan, alegia, bi hizkuntzen presentzia dagoenetan. Balore negatiboak dituzten udalerrietan, gainera, beste hau ere gertatzen da: gehiago dira lehen hizkuntzatza euskara eta gaztelania izan, eta etxean bi hizkuntza erabiltzen dituztenak. Nolabait, beheko partean bi hizkuntzen erabilera nahasia gertatzen da.


Bigarren faktoreak euskalduntasun balore antzekoa duten herrien arteko desberdintasunak azaleratzen ditu. Hain zuzen ere, bi faktore soziolinguistiko nagusi horiek konbinatuz (ikus 1. irudia), udalerrien grafiko interesgarria sortzen da (ikus 8. grafikoa). Euskararen presentzia handiena duten udalerrak (E+, EG) berde-tonalitatetan agertzen dira, eta gaztelaniaren presentzia handiagoa duten udalerrak (G+, G++) gorriz. Ardatz horizontalak euskalduntasuna adierazten du, eta ardatz bertikalak ezagutzaren eta erabileraren arteko bat-etortzea. Hala, EAEko udalerrak euskaldunenak grafikoaren eskuinaldean ageri dira, eta gaztelaniaren presentzia handiagoa dutenak, ezkerrean. Ikuspegi bertikalean, goiko aldean ageri dira erabilera elebakarragoa duten udalerrak, eta beheko partean bi hizkuntzen erabilera ageriagoa dutenak.

– 1. irudia –

Bi faktore soziolinguistiko nagusiak koordinatu-ardatz batean.



- 8. grafikoa -
Udalerrriak, bi faktore soziolinguistikoan arabera



8. grafikoa udalerrri gehien beheko eskuineko koadrantean ageri dira. Bestalde, espero zitekeenez, udalerrri euskaldunetan ardatz bertikalean aldakortasun handiagoa dago. Udalerrri euskaldun horietan hiztun elebidun gehiago dagoenez, ez da harrizkoa hizkuntzen erabileran aldakortasun handiagoa agertzea. Euskalduntasun maila bereko udalerrrietan gerta daiteke batzuetan (ia) beti euskaraz egitea eta besteetan bi hizkuntzen erabilera mailak antzekoak izatea. Hori, jakina, ez da gertatzen euskalduntasun urriko udalerrrietan; horietan oso aukera gutxi daude euskaraz egiteko.

Grafikoaren beheko parteak aldakortasun soziolinguistiko handiagoa adierazten du, ezagutzaren eta etxeko erabileraren arteko alde handiagoa baitago bertan. Hortaz, badirudi esku hartzeko herririk interesgarrienak hor kokatzen direla.

4.4. Etxeko erabilera eta lehen hizkuntza


Esana dugu 4.2 atalean, aldagai soziolinguistiko nagusien portzentajeak alderatu ditugunean, lehen hizkuntzaren (LH) portzentajea handiagoa izan ohi dela etxeko erabilerarena (EH) baino. Lotura estua erakusten dute bi aldagai horiek, baina bien arteko erlazioa ez da lineala, 9. grafikoan ikusten denez. Kurba baten edo forma lerromakur baten itxura hartzen du udalerrien grafiko horrek.

Herri euskaldunenetan eta herri erdaldunenetan, euskara lehen hizkuntza dutenen eta etxeko erabileraren portzentajeak gertu antzean daude. Adibidez, euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajea % 85etik gertu dagoen udalerrietan (grafikoaren eskuin aldea), % 80ra hurbiltzen da etxeko erabileraren portzentajea. Bestalde, udalerrri erdaldunenetan, euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajea % 0tik gertu dagoenetan, berdintsua da euskaren etxeko erabileraren portzentajea ere.

Aitzitik, udalerrri ez hain euskaldun edo ez hain erdaldunetan, lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren portzentajeek alde handiagoa dute. Hala, grafikoko erdi ingurura joko bagenu eta, adibidez, euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajea % 50 ingurukoa duten udalerriei erreparatu, etxeko euskararen erabilera % 40tik behera dagoela ikusten dugu.

– 9. grafikoa –

Etxeko erabilera lehen hizkuntza euskara dutenen arabera. EAeko udalerrriak (%)



Analisian sakontzeko, euskara lehen hizkuntza duten herritarrak aztergai hartu, eta horietatik zenbatek egiten duen etxean euskaraz aztertu nahi izan da. Beste grafiko batean, 10.ean, adierazi da analisi hori. Azpimarratzekoa da azterketa honetan euskara lehen hizkuntza duten herritarrak baizik ez direla kontuan hartu (ardatz horizontala), eta herritar horiek etxean zein hizkuntza darabilten jaso dela ardatz bertikalean.


Hori horrela, ikusten da lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea handia denean, horietako gehienek euskaraz egiten dutela etxean. Esate baterako, euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajea % 85etik gertu dagoen udalerrietan (grafikoaren eskuin aldea), euskara lehen hizkuntza dutenetatik % 90 inguruk euskaraz egiten dute etxean. Dena den, euskara lehen hizkuntza dutenen portzentajeak behera egin ahala, hiztun horiek etxean euskara gutxiago erabiltzen dute: zenbat eta ezkerago (euskara lehen hizkuntzatzat gutxiagok dute), orduan eta beherago (horietatik gutxiagok egiten dute euskaraz etxean).

Portaera honek, alde batetik, zerikusia izan dezake Txillardegik (2001) proposatzen zuenarekin, alegia, euskal hiztun gutxiago dauden tokietan, askoz errazagoa dela bikote mistoak sortzea eta kide euskaldunak hizkuntza hegemonikoarekin bat egitea.

Baina horretaz gain, balizko *sare-efektua* (Sorolla & Reyes, 2017; Reyes, 2018; Sorolla, 2018a, 2018b) ere aintzat hartu behar da; horren arabera, hiztun kopurua eta haien ikusgaitasun publikoa murrizteak minorizazioa dakar.

– 10. grafikoa –

Euskararen etxeko erabilera lehen hizkuntza euskara dutenen artean, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoaren arabera. EAEko udalerrriak (%)



4.5. Eragin-eremu geografikoak eta erreferentzialtasuna

Udalerriek beraien artean harremanak dituzte. Jakina da populazioaren fluxuak gertatzen direla udalerrien artean, gai edo arrazoi ezberdin askorengatik (arrazoi administratiibo, ekonomiko, sozial eta kulturalak, lan harremanak, hezkuntza gaiak, etxebizitza eskuartzeko aukera edo hiriburua izateak dakartzanak, adibidez). Harreman eta fluxu hauek

guztiek eragina dute biztanleengan, ez bakarrik giza-harremanetan, baizik eta norbakoengan sortzen duten erreferentzialtasunagatik. Esate baterako, herri txiki batzuek herri handiagoetarako joera dute erosketak egiteko, zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko, edota aisialdi jardueretara joateko. Hori horrela, herri ertain edo handi batzuek egunerokoan beraien “menpeko” diren herrien eragina jaso ohi dute. Aldi berean, herri txiki batzuek giro urbanoetatik datozenen eragina nabarmen antzematen dute.

Fluxu hauek tipologia soziolinguistiko batetik besterako mugimendua ekar dezakete, eta horrek eragina izan dezake euskararen egoeran. Euskalduntasun maila antzekoa duten udalerriek fluxu horiekiko erreferentzia desberdinak eduki ditzakete, zein eremu geografikotan kokatuta dauden. Oso desberdina da eragin-eremu geografikoa beste udalerrri euskaldun txiki-ertainez osatuta egotea, ala gaztelania nagusi den hiri handi baten eragin-eremuan egotea.

Eragin-eremu geografikoaren eta fluxuen erreferentzien kontzeptuetara hurbiltzeko, udalerrrien arteko bizileku-aldaketa erabil daiteke, pentsatuz bizilekuaren hautua lotuta dagoela beste zernahi jardueratarako ditugun erreferentziekin.

Hori horrela, udalerrrien arteko bizileku-migrazioak aztertu dira, eta emigrazio/immigrazio fluxuen arabera, eragin-eremu geografikoak azaleratu dira. Emaitzek hiru eragin-eremu nagusi erakusten dizkigute (ikus 2. irudia):

- Bilbo, nahiko zentralizatua.
Bilbo da zalantzarik gabe Bizkaiko udalerrien gune nagusia, oso zentralizatua. Badira, ordea, beste gune batzuk ere, esate baterako, Durango eta Gernika. Lea-Artibai-ko eskualdeak dinamika propioa erakusten du.
- Gipuzkoa, deszentralizatua. Donostian du zentro bat, baina badira beste zentro batzuk ere.
Gipuzkoako eredia deszentralizatuagoa da nabarmenki. Hiriburua da gune nagusia, baina pisu handia dute beste udalerrri batzuek ere, adibidez, Tolosak, Zarautzek, Beasainek edo Azpeitiak.
- Gasteiz, zentralizatua.
Araban oso nabarmen da Gasteiz gune nagusia. Debagoieneko udalerriek Gasteizekin duten lotura ere oso agerikoa da.

Hori horrela, hizkuntz eraginari buruzko honako ondorioak atera daitezke:


- Bilbo G++ udalerrria izaki, eta hainbesteko erreferentzialtasuna duena, garbi dago Bizkaiko euskararen bilakaeran Bilbok berebiziko garrantzia izango duela.
- Gipuzkoan erreferentzia guneak E+ eta EG multzokoak dira. Euskararen aldeko dinamika sendotzeko aukerak zabaltzen ditu horrek.
- Gipuzkoako Debabarrenak lotura handiagoa erakusten du Bizkaiarekin.
- Araban, itxuraz, denak Gasteizen pibotatzen du (G++). Hala ere, bada Debagoienetik (EG) doan fluxua, eta horrek euskararen aldeko eragina eduki lezake.

4.6. Faktore soziodemografikoak

EAEko udalerrrien 400 aldagai soziodemografiko baino gehiagoren analisi faktoriala egin da ikusteko udalerriotan zein faktorek duten lotura hizkuntz erabilerekin. Ikusi da informazio soziodemografikoa sakabanatua dela, eta faktore soziodemografikoek nekezago sintetizatzen dutela sakabanaketa hori, faktore soziolinguistikoek baino. Errenta eta Barne-Produktu Gordina (BPG) dira analisi faktorialean gehien nabarmentzen diren aldagaiak. EAEko udalerrriak ezaugarritzeko faktore soziodemografiko nagusiak honako hauek dira:

1. Lehenengo faktoreak eraikuntza modua eta errenta biltzen ditu. Faktore honen arabera, honela bereizten dira udalerrriak: alde batetik, eraikuntza estentsiboa eta errenta ertainak⁶ dituztenak eta, bestetik, hiri-paisaia intentsiboagoa eta errenta txikiagoak⁷ dituztenak.
2. Bigarren faktoreak, berriz, udalerrrien aberastasun-maila edo errenta jasotzen du. Errenta oso altuak eta errenta oso baxuak bereizten dira.

Lehenengo faktorea ardatz horizontalean, eta bigarrena ardatz bertikalean jarriz gero, 3. irudiko koordinatu-ardatza osatzen da:



Udalerrriak bi faktore horien arabera koordinatu-ardatzean kokatzen baditugu (ikus 11. grafiko), eta ardatz horizontalari erreparatzen badiogu, udalerrri euskaldunenak (puntu berdeak) grafikoaren eskuin aldean ageri zaizkigu (nagusiki), eraikuntza-eredu estentsiboa eta errenta handiagoak dituzten udalerrrien eremuan. Aldiz, udalerrri erdaldunenak (puntu gorriak) ezkerrean ageri dira batez ere, hain zuzen, eredu intentsiboari eta errenta baxuei dagokien partean.

⁶ Etxebizitza bakarreko eraikinen presentzia, izaera landatarraren adierazlea.


⁷ Bloketan antolatutako etxebizitzak, izaera urbanoaren adierazlea.

Ardatz bertikalean, udalerrien banaketa errentaren arabera egiten da. Errenta altuko udalerrriak goiko partean daude, errenta baxukoak beheko partean. Grafikoak erakusten du goiko aldean kolore berdea dela nagusi (udalerrri euskaldunak); behekoan, ordea, udalerrri erdaldunak (gorriak) ageri dira batez ere.

Ikusten da badela nolabaiteko erlazioa faktore soziodemografiko hauen eta euskararen erabilerearen artean. Hau da, errealitate soziodemografikoa erlazionatuta dago errealitate soziolinguistikorekin, zeharka bada ere.


- 11. grafiko -

Udalerrien kokapena bi lehenengo faktore soziodemografikoen arabera.



Badira euskararen presentziarekin lotutako beste hainbat aldagai soziodemografiko ere, beti bistakoak ez direnak, hala nola, populazioa autoktonoa eta etxeko egitura tradizionalagoak izatea. Aldagai horiek kontrajarri egiten zaizkie gaztelaniaren erabilera handiagoarekin lotutako beste faktore batzuei: errenta txikiagoak, langabezia handiagoa, EAEn gero eta gehiago dauden etxeko egiturak –seme-alabarik gabeko familia nuklearrak–, edo eraikin handi eta ertainez osatutako hiri-paisaiak. Kontrajartze horrek soziologian erabiltzen den “modernizazioaren” ideia dakar. Gizarte tradizionalagoa lotuago dago euskarekin; gizarte “modernoagoak” harreman estuagoa du gaztelaniaren erabilerekin.

4. irudiko eskeman, modernizazioaren hainbat ardatz jaso dira, eta horietako bakoitzean hizkuntz erabilerarekin lotzen diren aldagai batzuk ageri dira.



Ekoizpen-moduen ardatzean landa-munduko jarduera euskararekin lotzen da, zerbitzuak gaztelaniarekin, eta mundu industrialia neutroago ageri da.

Paisaiari eta presio urbanistikoari dagokienez, euskararen erabilera eraikuntza estentsiboagoarekin erlazionatuta dago (etxe edo baserri solteagoak), eta gaztelania eredu intentsiboagoarekin⁸. Euskara *landatarragoa* da, gaztelania *urbanoagoa*. Baina, baieztapen hori ñabartu beharra dago, izan ere, gune soziolinguistikoen arabera errealitate oso desberdinak topatzen baititugu. Hala, gaztelaniaren nagusitasuna agerikoa den landa-herri txikiak ere baditugu, adibidez, Araban⁹.

Familia-ereduetan, berriz, ikus daiteke familia handiak eta polinuklearrak euskararen erabileratik gertuago daudela. Beste aldean, familia nuklearrak edota, are umerik gabekoak, gaztelaniaren erabilerarekin lotuago daude. Transmisioaren eragina ager daiteke hor.

Laugarren ardatzean, biztanleriaren fluxuarenean, immigrazioa eta giro urbanoko fluxuak gaztelaniaren erabilerarekin erlazionatuta daude; aldiz, baserri giroko fluxuak euskararekin. Udalerrri berean estudiatzea gaztelaniarekin lotzen da, eta beste udalerrietara joan behar izatea, ordea, euskararekin¹⁰.

⁸ Horrek ez du esan nahi etxebizitza ereduak hizkuntza baten edo bestearen erabilera errazten dutenik.

⁹ Horregatik da garrantzitsua zonalde soziolinguistikoen araberako azterketak egitea. Lan honetan bertan atal osoa eskaini diogu multzokatze soziolinguistikoari.

¹⁰ Honakoan ere, ezin da pentsatu zuzeneko erlazioa dagoenik. Euskarak ez ditu herritarrak kanpora bidaltzen estudiatzera. Zeharkako erlazioa da: euskara landa-giroko guneekin lotuago ageri denez, bertakoek kanpora joan behar izaten dute estudiatzera.

Eskeman ageri diren faktore soziodemografiko guztietatik bi dira nagusiki EAEko udalerrriak bereizten dituztenak: hiri-paisaia eta populazioaren errenta. Bi faktoreak garrantzitsuak dira soziolinguistikari dagokionez, zeren, orokorrean, euskararen erabilera erakuntza estentsiboagoa eta errenta handiagoak dituzten udalerrietan kokatzen baita.

Orokorrean modernizazioa hizkuntza-homogeneizazioaren arrazoia delako hipotesia ageri da. (Dorian, 1981; Edwards, 2010; Gal, 1979; Milroy, 1980; Milroy & Milroy, 1992). Gizarte tradizionalagoetan, belaunaldien arteko harremanak indartsuagoak direnetan, erazagoa da transmisio handiagoa izatea. Hortaz, modernizazio-prozesua euskararentzako arriskuekin lotzen dugu. Hemen bada erronka bat.

Dena den, argi ikusten da herrialdearen aniztasuna kontuan izan behar dela eta zenbait eremu soziolinguistikok berariazko dinamikak dituztela. Faktore berdinek (landatartasunak, hirigintza-presioak, industriak eta abarrek) ez dute eragin berdina eremu desberdinetan. Horregatik guztiagatik, lehen ere azaldu denez, udalerrien lau multzo soziolinguistiko bereizi ditugu, euskara nagusi duten udalerrietatik gaztelania gailentzen den udalerrietara.

Udalerrien euskalduntasuna, oro har, errenta ertain-handiekin lotzen da, eta errenta txikiak edo langabezia euskararen erabilera txikiagoa duten udalerriekin lotzen dira. Baina, aldi berean, euskararen erabilera txikiaren adierazleak errenta handiekin eta bigarren etxebizitza ugariarekin ere lotzen dira. Baliteke emaitzetan efektu bat hautematea, hain zuzen ere, Valentziako soziolinguistikari *sandwich-efektua* (Hernández i Dobon, 2016) deitu izan zaiona; izan ere, gaztelaniak presentzia txikiagoa du behe-mailako klaseetan, klase horretako kide asko etorkinak direlako, bai eta goi-mailako klaseetan ere, desfekzio-prozesuak eragin dielako (Montoya Abat & Mas i Miralles, 2011). Hortaz, hizkuntzaren indarra erdi-mailako klaseetan legoke, hau da, ohiko moduan dinamikoan diren klaseetan. Puntu honetan bada aukera bat, erdi-mailako klaseak aldaketen eragile izan ohi direnez, euskararen erabilera bultzatzeko prozesuan lidergoa har baitezakete.

Bestalde, aloglotoen¹¹ fenomeno ere kontuan hartzekoa da, batez ere etorkizunean izan dezakeen eraginagatik. Etorkin aloglotoen tasa handieneko udalerrriak euskararen etxeko erabilera txikiarekin lotzen dira, baina, aldi berean, euskararen kaleko erabilera altuarekin ere lotzen dira. Horrek ez du esan nahi etorkin aloglotoek kalean euskara intentsitate handiz erabiltzen dutenik, baizik eta, etxean ez bezala, kaleko erabilera neurtzen den espazioetan presentzia urria dutela. Jatorritik gaztelania ekarri dutenen aldean, pertsona horiek ez lukete halako baldintzatzaile esturik bertako hizkuntza aukeratzekoan (hizkuntza ofizial biak arrotzak baitzaizkie), ez bada nagusitasun edo erabilgarritasun irizpideen ondorioz. Beraz, komunitateen arteko konfluentzia gertatu ahala, ikusi beharko da zer bilakaera hartzen duen euskararen erabilerak. Hor bada, noski, kohesio sozialari begirako erronka, eta bada, era berean, kohesio linguistikoari begirakoa ere. Etorkizunari begirako desafioa dago hor.

¹¹ Lehen hizkuntza gisa ez euskara ez gaztelania jaso ez duten pertsonak dira aloglotoak.

5. Ondorioak



Egindako azterketaren ondorio nagusiak bilduko ditugu atal honetan. Aurretik, hala ere, lanaren motibazioa eta helburua ekarri nahi ditugu gogora.

EAEen euskararen erabilerarekin *lotzen diren faktoreak* zeintzuk diren azaleratzea hartu dugu xede. "Lotzen diren faktoreak", horrela diogu, eta merezi du argitzea zer esan nahi den esamolde horrekin.

Lotura izatea zer den argitu behar da lehenik. Zentzurik zabalenean hartu behar da: euskararen erabilerarekin nolabaiteko erlazioaz ari gara, datuen arteko nola edo halako korrespondentziaz edo korrelazioaz (lotura estatistikoaz). Horrek ez du esan nahi ezinbestez kausa-ondorio erlazioa (kausalitatea) gertatzen denik. Hori horrela, udalerrri berean bi faktoreren arteko lotura agertzea izan daiteke, adibidez, etorkizuneko agertoki baten edo erronka baten adierazle. Kontu hau oso presente eduki behar da ondorioak irakurtzean eta interpretatzean, bestela erraz atera daitezke-eta ondorio okerrak.

Faktore hitzaren hedadura da hurrena argitu beharrekoa. Izaera soziolinguistikoa duten faktoreak erabili dira, bai, baina ez horiek bakarrik. Bestelako faktore soziodemografikoak ere aztertu dira, tartean hizkuntzen erabilerarekin lotura agerikoa edo bat-batekoa ez dutenak. Aniztasun horrek dimentsio osatuagoa ematen dio lanari.

Hala bada, aldagai soziolinguistiko eta soziodemografikoen sorta oso handia aztertu dugu, eta hasierako ustea egiaztatu ahal izan dugu: ikerketa honi jarritako helburua oso konplexua da. Lehenik, *euskararen erabilera* hainbat ikuspegitik begiratuta azter daitekeelako. Adibidez, ez da berdin etxeko erabileraz aritzea edo kalekoaz. Eta bietatik zein hartzen den, beste aldagaiekin alderaketak egitean, emaitza desberdinak atera daitezke. Bigarrenik, erabili diren iturburuak desberdinak direlako, bai datuak biltzeko moduari dagokionez (inkestak edo zuzeneko behaketak), bai eremu geografikoaren mugaketari dagokionez (bada EAE osoa hartzen duenik, bada udalerrri batzuk baizik hartzen ez dituenak). Hirugarrenik, adierazle soziodemografiko erabilgarriak *pistak* baino ez direlako, hain zuzen ere, esparru teorikotik aintzat hartzen diren dimentsioen eta kontzeptuen pistak. Horrenbestez, har ditzagun ondorio hauek euskararen erabileraren azpian benetan dauden faktoreak antzemateko hurbilketatzat eta, batik bat, hizkuntzen erabileran lehiatzen dabiltzan mekanismoak ulertzeko pistatzat. Emaitzek hainbat ikuspegi eskaintzen dituzte eta, batzuetan, ordenarik gabe egotearen itxura eman dezakete, edo kaotikoak direla ere pentsa daiteke. Baina, oro har, euskararen erabilera ulertzeko lerro nagusiak marrazten laguntzen digute, eta etorkizunerako aztergai ugari ere eskaintzen dizkigute.

Hona hemen, bada, azterlan honek utzi dizkigun ondorio nagusiak:

- 1.** Aldagai soziolinguistikoaren portzentajeen hurrenkera.
Udalerrrien tipologia soziolinguistikoa edozein izanda ere, ia beti honako hurrenkera betetzen da lau aldagai soziolinguistiko nagusien portzentajeetan, altuenetik txikienera: ezagutza, kale-erabilera, lehen hizkuntza, etxeko erabilera.
- 2.** Euskararen erabilerarekin lotura estuena duten aldagai soziolinguistikoak.
Faktore-analisiak erakutsi digu euskararen erabileran zerikusi estuena duten aldagaiak *euskalduntasun* izenda daitezkeen faktore edo kontzeptu abstraktuan bil daitezkeela.
Euskalduntasuna honako aldagaiek osatzen dute: euskararen gaitasun-mailak ahoz eta idatziz, lehen hizkuntza euskara dutenen kopuruak, eta etxeko erabile-

rak. Horiez gain, euskararen presentzia handieneko udalerrietan beste ezaugarri hauek ere nabarmentzen dira: 35 urtetik gorako euskararen ezagutza (35 urtez azpitik orokortuagoa da ezagutza hori), jatorrizko euskaldunek etxeko erabilerari eustea, eta erreferentziako udalerrriak (migrazioetan) ere euskaldunak izatea.

3. Adina.

Euskalduntasun handiko eta urriko udalerrriak alderatuta, bereizgarri nagusieta-ko bat da helduen eta adinekoen artean zenbatekoa den euskararen presentzia. Udalerrri euskaldunagoetan helduek eta adinekoek presentego dute euskara, eta, aldiz, erdaldunagoetan arrotzago zaie. Alde hori ez da hainbeste nabarmentzen gazteen artean, gutxi edo gehiago, ezagutza mailan bada ere, euskara eskolatik bederen jaso dutelako udalerrri ia guztietan. Udalerrri euskaldunak adinez nagusi direnen euskalduntasunarekin lotzea ahultasun sintomatizat har daiteke. Baina, bestalde, euskaltasun urriko udalerrietan, euskara gertuen dutenak gazteak izatea bada, nolabait, biziberritze prozesuaren ondorioz eratorritakoa, eta hori aurrera begirako aukeratzat hartu behar da.

4. Generoa.

Oro har, beti horrela ez bada ere, euskarak presentzia handiagoa erakutsi du emakumeen artean, gizonen artean baino. Batez ere, kaleko erabilerari dagokionean. Badirudi emakumeak aurrerago doazela euskara berenganatzeko prozesuan. Dinamika hori berretsiko balitz, euskararen bizindarraren adierazgarria izango litzateke; izan ere, hainbat autorek diotenez, bilakaera soziolinguistikokoan emakumeek lehenago eskuratzen dituzte prestigiozko aldaerak.

5. Udalerrien multzokatze egokia beharrezkoa da.

Aldagai soziolinguistikoek erabilerarekin duten lotura hobeto interpretatu ahal izateko, beharrezkoa da udalerrriak beren tipologia soziolinguistikoaren arabera multzokatzea. Azterlan hau egin aurretik ere, Mapa Soziolinguistikoak EAEko udalerrriak lau gune soziolinguistikotan banatzen ditu, udalerrietako euskararen ezagutza-mailaren arabera.

Lan honetan udalerrriak beste modu batera multzokatu dira, ezagutzaren aldagaia ez ezik, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren emaitza enpirikoetan oinarrituta, eta analisisian datu orokorrak, adin-taldeka eta generoaren arabera gurutzatuak ere aintzat hartuta.

Lau multzo soziolinguistiko lortu dira horrela, udalerrriak euskararen presentzia handienetik txikienera sailkatuta.

Multzokatze hori dela eta, nabarmentzeko modukoak iruditzen zaizkigu honakoak:

- Oro har, udalerrien sailkapenean mapa soziolinguistikoaren eta azterlan honetako multzokatzearen artean bat etortze handia dago. Baina 2. gune soziolinguistikoan, gaitasuna % 20-50 bitartekoa den udalerrietan, ikusi da hizkuntza gaitasuna ez dela aldagai aski adierazgarria errealitate soziolinguistikoa identifikatzeko. Hori dela eta, pentsa daiteke etorkizunean hizkuntza gaitasunaz gain bestelako aldagaiak ere beharko direla udalerrriak beren errealitate soziolinguistikoaren arabera sailkatzeko.
- Inkesta bidezko datuak erabiltzen direnean gune soziolinguistikoak bereizteko, Kataluniako esperientziak erakusten du “Zein da zure hizkuntza” gal-

deraren erantzunek dutela korrelazio handiena erabilerarekin. Katalunian “identifikazio hizkuntza” deitzen zaio galdera horretatik eratorritako emaitzari. Interesgarria litzateke gurean ere galdera hori lantzea inkestetan.

- Gure azterlan honetatik eratorritako lau multzoen artean ez dago etenik, *continuum* bat da. Lau multzoetan ditugu udalerririk, baina bada nolabaiteko asimetria bat: euskara erabat nagusi den udalerririk ez dago.

6. Eragin-eremu geografikoak eta fluxuak.

Udalerririk ezin dira modu isolatuan irudikatu. Batetik besterako populazioaren fluxuek ere eragina dute udalerririk errealitate soziolinguistikoa. Horregatik da garrantzizkoa jatorri- eta xede-herriren arteko harremanak aztertzea.

Hurbilpen gisa, azken hamar urteetako udalerririk arteko bizileku-aldaketa erabili dugu, pentsatuz bizilekuaren hautua lotuta dagoela beste zernahi jardueratarako ditugun erreferentzietan.

Azterketa horretan ikusi da herri euskaldunenak, beren emigrazio/immigrazioetan, herri ez hain euskaldunekin dutela harremana. Horrek, bistan da, arnagunee-tan du eragina bereziki. Oro har, herri txikiak zaugarriagoak dira.

Horrez gain, EAEko erreferentzia-gune nagusiak ere identifikatu dira, eta ikusi da Bizkaian eta Araban hiriburuek zentralitate handia dutela, baina Gipuzkoako eredu deszentralizatuagoa da.

7. Lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren portzentajeak.

Ikusi da, batetik, bi portzentaje horien arteko alderik txikiena udalerririk euskaldunenetan edo erdaldunenetan gertatzen dela. Tartekoetan, bi hizkuntzen erabilera nahasiagoa denetan, lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren arteko aldea handitu egiten da. Ohargarria da aldea handiagoa deneko udalerririk horietan aldakortasun soziolinguistikoa handiagoaren zantzuak ageri direla, besteak beste, gehiago dira bi lehen hizkuntza (euskara eta gaztelania) dituzten herritarrak. Horrenbestez, pentsa genezake udalerririk horiek direla erabilera handitzeari begira aukera potentzial handiena eskaintzen dutenak eta, hortaz, esku hartzeko herririk interesgarrienak.

8. Ingurune soziolinguistikoa eta sare-efektua.

Euskara lehen hizkuntza dutenek gehiago egiten dute etxean euskaraz udalerririk euskaldunetan erdaldunetan baino. Euskara beren lehen hizkuntza izan arren, ingurune erdaldunak etxean erabiltzea zaildu egiten die. Hau da, inguruneak kalean edo eremu publikoan duen eraginaz adierazi izan direnak, adierazgarriak dira halaber etxeko eremuan.

Berretsi egiten da Txillardegik aurreratu zuena: euskal hiztun gutxiago dauden tokietan, askoz errazagoa da bikote mistoak sortzea eta kide euskaldunak hizkuntza hegemonikoarekin bat egitea.

Beste autore batzuek *sare-efektua* diote izan diote hiztun kopurua eta haien ikusgaitasun publikoa murrizteak dakarren minorizazioari. Etxeko txokoraino iristen da fenomeno hori.

9. Aldagai soziodemografikoak: modernitatearen ideia.

Soziodemografiak hizkuntzen erabilerarekin duen lotura aztertzeko, EAEko udalerririk 400 aldagai baino gehiagoren analisia egin da.

Ikusi da errealitate soziodemografikoa erlazonatuta dagoela errealitate soziolin-

guistikoarekin. Faktore soziodemografiko guztietatik bi dira nagusiki EAEko udalerrriak bereizten dituztenak: populazioaren errenta eta hiri-paisaia. Orokorrean, euskararen erabilera eraikuntza estentsiboa eta errenta ertain-altuak dituzten udalerrietan nabarmentzen da.

Analisian sakondu ahala, soziologian erabiltzen den *modernizazioaren* ideia agertu da. Modernizazioarekin nolabaiteko zerikusia duten lau ardatz eratorri dira: ekoizpen-moduak, paisaia eta presio urbanistikoa, familia-ereduak, eta populazioaren fluxuak. Ardatz bakoitzetik soziolinguistikari begirako honako ondorioak atera ditugu:

- Ekoizpen-moduak: Euskarak badu lotura landa-munduko jarduerarekin, gaztelaniak zerbitzuekin, eta mundu industrialia neutroago ageri da.
- Paisaia eta presio urbanistikoa: Euskararen erabilera eraikuntza estentsiboagoarekin erlazionatuta dago (etxe edo baserri solteagoak), eta gaztelania eredu intentsiboagoarekin. Euskara *landatarragoa* da, gaztelania *urbanoagoa*. Baina, baieztapen hori ñabartu beharra dago, izan ere, gune soziolinguistikoaren arabera errealitate oso desberdinak topatzen baititugu. Hala, gaztelaniaren nagusitasuna agerikoa den landa-herri txikiak ere baditugu, adibidez, Araban.
- Familia-ereduak: Etxepe berean bizi diren familia handiak eta polinuklearrak (baserri handien segregazioak eraginda) euskararen erabileratik gertuago daude; aldiz, familia nuklearrak edota umerik gabekoak gaztelaniaren erabilerarekin erlazionatuta ageri dira. Belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren eragina iradokitzen du puntu honek.
- Biztanleriaren fluxuak: Immigrazioa eta giro urbanoko fluxuak gaztelaniaren erabilerarekin erlazionatuta daude; aldiz, baserri giroko fluxuak euskararekin. Udalerrri berean estudiatzea gaztelaniarekin lotzen da, eta beste udalerrietara joan behar izatea, ordea, euskararekin.

Orokorrean, modernizazioa hizkuntza-homogeneizazioaren arrazoia delako hipotesia nabarmentzen da.

10. Errentak eta *sandwich efektua*.

Errenta da, esan dugunez, soziodemografia eta soziolinguistika lotzen dituen aldagai pisuenetakoa. Euskararen erabilera errenta ertain-altuekin lotzen da. Zehazkiago, errenta handienak eta baxuenak gaztelaniarekin lotzen dira, eta tartekoak euskararekin. *Sandwich efektu* deitzen zaio fenomeno horri. Horren arabera, gaztelaniak presentzia handia du behe-mailako klaseetan eta goi-mailakoetan; euskararen indarra, ordea, erdi-mailako klaseetan nabarmentzen da. Interesgarria da fenomeno hau euskararen berreskurapenari begira. Erdi-mailako sektore horiek (irakasleak, funtzionarioak, lanpostu egonkorra duten langileak, esate baterako) izan daitezke aktiboena, eragile nagusiak, eta gizarte dinamika indartsuenak abiaraz ditzaketenak.

11. Aloglotoak.

Aloglotoek, edo lehen hizkuntza gisa ez euskara ez gaztelania jaso ez duten pertsonen, pisu handia izan dezakete etorkizuneko hizkuntza-erabileraren bilakae-

ran. Etorkin aloglotoen tasa handieneko udalerrriak euskararen etxeko erabilera txikiarekin lotzen dira, baina, aldi berean, euskararen kaleko erabilera altuarekin ere lotzen dira. Horrek ez du esan nahi, jakina, etorkin aloglotoek kalean euskara intentsitate handiz erabiltzen dutenik, baizik eta, etxean ez bezala, kaleko erabilera neurtzen den espazioetan presentzia urria dutela.

Aloglotoen migrazio hori gaztelaniaz mintzo den migrazioak baino gizarteratze-maila txikiagoa izanik, euskaldunen elkarreraginetan eragin txikia du (oraingoz), eta, horregatik, ez du hainbesteko eraginik hizkuntzaren kaleko erabileran. Jatorritik gaztelania ekarri dutenen aldean, pertsona aloglotoek ez lukete halako baldintzatzaile esturik bertako hizkuntza aukeratzekoan (hizkuntza ofizial biak arrotzak baitzaizkie), ez bada nagusitasun edo erabilgarritasun irizpideen ondorioz. Beraz, komunitateen arteko konfluentzia gertatu ahala, ikusi beharko da zer bilakaera hartzen duen euskararen erabilerak. Hor bada, noski, kohesio sozialari begirako erronka, eta bada, era berean, kohesio linguistikoari begirakoa ere. Etorkizunari begira, lanerako alor garrantzitsua ikusten da hor.

Ondorioek erakutsi dutenez, azterlan hau hurbilpentzat hartu behar da. Hainbat dira irekitako bideak eta aukerak, hainbat dira erantzun partziala jaso duten galderak. Ikertzen jarraitu beharra dago, konplexutasun handiko alor honetan fokua galdegai egokietara orientatu, eta, teknika kuantitatiboak nahiz kualitatiboak erabiliz, errealitate soziolinguistikoaren gako nagusiak argitzen saiatu. Badugu aurrerantzean ere zer egina.

6. - Erreferentzia bibliografikoak

Altuna, O. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016. Emaitza nagusien txostena. Soziolinguistika Klusterra. Bat: Soziolinguistika aldizkaria, (98). 2017.

Altuna, O. *Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran?*. Soziolinguistika Klusterra. Bat: Soziolinguistika aldizkaria, (106). 2018.

Álvarez, J.L. Txillardeggi. *Hacia Una Socio-Lingüística Matemática*. Euskal Soziolinguistika Institutua, Ed. Donostia. 2001.

Boix-Fuster, E., Vila i Moreno, F. X. *Sociolingüística de la llengua catalana*. Barcelona: Ariel. 1998.

Eckert, P., McConnell-Ginet, S. *Communities of practice: Where language, gender, and power all live*. in K. Hall, M. Bucholtz, & B. Moonwomon (Ed.), *Locating Power, Proceedings of the 1992 Berkeley Women and Language Conference* (Berkeley Women and Language Group). Berkeley. 1992.

Hernández i Dobon, F. J. *El tio Canya ha mort. Notes sobre la mecànica sociolingüística del valencià*. Fundació Nexè. 2016.

Holmes, J., Meyerhoff, M. (Ed.). *The handbook of language and gender*. Malden, MA: Blackwell. 2003.

Isasi, X. *Hizkuntza gutxitua, bizi iraupena eta normalkuntza*. Bat: Soziolinguistika aldizkaria, (36), 11-25. 2000.

Montoya, B., Mas i Miralles, A. *La transmissió familiar del valencià*. València: Acadèmia Valenciana de la Llengua. 2011.

Pujolar, J. *De què vas, tí? Gènere i llengua en la cultura juvenil*, Empúries, Barcelona: Empúries. 1997.

Reyes, A. *Neofablants, a muda lingüística en o contexto rural de baixa vitalitat de l'aragonés. Artieda en a comarca d'a Chacetania, estudio de caso*. Presentat a Actas do CILX2018. 2018.


Sorolla, N., Reyes, A. *L'aragonés en a Chacetania. Estudio sociolingüístico*. Comarca de la Jacetania. 2017

Sorolla, N. *Ramón y Cajal i l'aprenentatge de la llengua aragonesa per l'efecte xarxa*. 2018a.

Sorolla, N. *Vídeos sobre l'efecte xarxa, la transmissió del català i l'aragonès, i l'estudi dels usos*. 2018b.

Sorolla, N., Vila i Moreno, F. X. *Els grups d'ús lingüístic i els grans canvis en els usos entre el 2003 i el 2013*. Generalitat de Catalunya (Ed.), Anàlisi de l'Enquesta d'usos lingüístics de la població 2013. Resum dels factors clau. (Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, p. 30-33). Barcelona. 2015.

Vila, F. X., Sorolla, N. *La realitat i l'evolució a partir dels grups d'origens i usos lingüístics*. En J. Melià & M. del M. Vanrell (Ed.), Enquesta d'usos lingüístics a les Illes Balears. 2014 Anàlisi (Conselleria de Cultura, Participació i Esports (Govern de les Illes Balears) -Departament de Cultura (Generalitat de Catalunya)-Universitat de les Illes Balears, p. 106-124. 2017.



www.soziolinguistika.eus